

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia, 8 de marzo de 2004

Estimado/a donostiarra:

Dado que el Sr. Elorza ha hecho pública la propuesta remitida a nuestro grupo sobre los presupuestos, me veo obligado a enviarle la respuesta de mi grupo. Le envío, asimismo, la enmienda a la totalidad, que recoge nuestras razones presupuestarias para reclamar la negociación de un nuevo presupuesto. Así, Vd. podrá disponer de una información completa, imprescindible para formarse una opinión. Le ruego pues que lea los documentos adjuntos.

Debo empezar diciéndole que estoy francamente preocupado por el rumbo que están tomando las cosas en el Ayuntamiento. La distancia entre lo que se dice y la realidad es cada vez mayor en temas muy sensibles. Por ejemplo, la transparencia informativa y la igualdad de oportunidades están siendo lesionadas. Le daré un ejemplo: el Alcalde nos prohibió utilizar el Salón de Plenos –Salón que es utilizado por numerosos organismos para diferentes actos- para informar a las entidades donostiarras sobre nuestra propuesta presupuestaria, nos envió a Goikoa, y ha impedido que nuestra propuesta presupuestaria esté disponible en la web municipal para que pueda ser consultada por los ciudadanos como lo puede ser la suya.

El ayuntamiento se encuentra en una situación difícil, con un Alcalde que optó por formar un gobierno en minoría tan solo con los concejales de su partido. Ahora quiere repartir el trabajo, algunas delegaciones, pero manteniendo en manos de la minoría socialista el monopolio del gobierno. Eso impide crear una mayoría de gobierno que de estabilidad, serenidad y capacidad de liderazgo al ayuntamiento, y eso es malo para la ciudad.

La situación se vuelve más complicada, si cabe, ante la nula capacidad de negociación demostrada por el Alcalde a la hora de abordar los presupuestos. Todo su empeño ha consistido en sacar a toda costa adelante su propuesta haciendo alguna "corrección", sin abordar las diferencias de fondo, y esperamos que no caiga en la tentación de utilizar argucias legales para sacar un presupuesto de espaldas y en contra de la mayoría.



Zinegotziak - Concejales y Concejales



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián


Nuestro grupo, EAJ/PNV-EA, y yo mismo, estamos empeñados en dotar al ayuntamiento de un presupuesto, pero un presupuesto sostenible y ambicioso, que permita atender las prioridades de la ciudad desde una visión avanzada y progresista. Por eso no apoyamos el presupuesto de Elorza, que supone subida desmesurada del gasto corriente y ahogo del ahorro, así como insuficiente esfuerzo en vivienda y desatención de importantes actuaciones. Nosotros entre parques y vivienda, por ejemplo, tenemos clara la prioridad en Donostia: vivienda. Por eso apostamos por un presupuesto con más ahorro, más inversión, más esfuerzo en vivienda (VPO y vivienda libre), más esfuerzo social y en barrios, compromiso firme para San Telmo, para la implantación del tranvía o para la desaparición de los viaductos de Carlos I e Iztueta, para hacer de Donostia una ciudad más humana, con menos cemento.

En cualquier caso, considero que este es el momento de ponerse manos a la obra a negociar un nuevo presupuesto. Un presupuesto posible que no será ni el del grupo socialista como quiere Elorza ni el de la coalición EAJ/PNV – EA, pero que será el presupuesto de la mayoría. Elorza sabe que nuestra mano está tendida para ello.

Sólo hace falta que Elorza abra las puertas al diálogo y a la negociación, que los practique, con lealtad y respeto, sin salidas de tono y con humildad y responsabilidad, porque Donostia somos todas y todos, y todas y todos somos necesarios, aunque nadie es imprescindible.

Seguimos solicitando a Elorza día y hora para negociar un nuevo presupuesto: cuanto antes, mejor.

Recibe un cordial saludo.


Roman Sudupe Olaizola
Portavoz de EAJ/PNV-EA





Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia, 2004ko martxoaren 8a

Donostiar hori:

Odon Elorzak aurrekontuen gainean egin digun proposamena lau haizetara zabaldu duenez, gure taldearen erantzuna ere bidali beharrean nagoela iruditzen zait. Erantzun horrekin batera, gobernu taldearen aurrekontuari egin diogun osoarekiko zuzenketa ere bidali dizuet. Hor datoz aurrekontu berria negoziatzea eskatzeko dauzkagun arrazoiak, aurrekontu arrazoiak. Horrela, informazio osoa izango duzu; derrigorrezko gauza, alegia, zure iritzia egiteko. Irakur itzazu, mesedez, bidali dizkizudan dokumentuak.

Lehenik eta behin, esan nahi dizut erabat kezkatuta nagoela Udaleko gauzak hartzen ari diren bidea dela eta. Geroz eta alde handiagoa dago esaten denaren eta izaten denaren artean, eta oso gai delikatueta gainera. Informazioaren gardentasuna eta aukera berdintasuna, esate baterako, urratzen ari dira. Adibide bat jarriko dizut: alkateak galarazi egin zigun udalbatza aretoa erabiltzea —erakunde askok gauza askotarako erabiltzen badu ere areto hori— aurrekontu proposamenaren berri Donostiako elkarte eta herritarrei emateko (Goikoa jauregian emateko esan zigun), eta ez du utzi, halaber, gure aurrekontu proposamena Udalaren webean jartzen, beste elkarte batzuen bezala —zuen, konparazio baterako— ikus eta azter dadin.

Egoera zailean dago Udala; izan ere, gehiengorik gabeko gobernu eratzeari aukeratu baitzuen alkateak, bere alderdiko zinegotziz bakarrik osatua. Orain, berriz, lana partitu nahi du (ordezkaritza batzuk eman), baina gutxiengo sozialistaren eskuetan eutsita gobernuaren monopolioari. Horrela ez dago, jakina, gehiengoaren babesa izango duen gobernu eratzeari, lasaitasuna eta aurrera egiteko indarra emango diona Udalari, eta hori txarra da hiriarentzat.

Lehen ere zaila dena gehiago zaildu besterik ez du egiten, bestetik, aurrekontuei heltzeko orduan alkateak erakutsi duen negoziazio gaitasun gabezia erabatekoak. Haren eginahala guztia bere proposamena aurrera ateratzea izan da, "zuzenketa"ren bat edo beste eginda, baina azpian dauden diferentzietan heldu gabe, eta espero dezagun martingala edo kako-makoren bat erabiltzeko tentazioan ez erortzea gehiengoari bizkar eman eta haren kontra ateratzeko aurrekontua aurrera.



Zinegotziak - Concejales y Concejales



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gure taldearen, EAJ-EA udal taldearen, eta baita nire neure eginahala guztia ere beste bat da: aurrekontua izatea, baina aurrekontu eramangarri eta asmo handikoa, ikuspegi aurreratu eta aurrerakoi batetik begiratuta erantzungo diena hiriaren lehentasunei. Eta horregatik ez gatoz bat Elorzaren aurrekontuarekin, gastu arrunta neurri gabe handitzea eta aurrezkoa itotzea dakarren aurrekontuarekin, etxebizitza sustatzeko behar adinako ahaleginik egiten ez duenarekin eta beste eginbehar inportante asko ere behar bezala kasu egin gabe uzten dituenarekin. Guk, parkeak edo etxebizitza aukeran jarriz gero, garbi daukagu zeri eman behar zaion lehentasuna Donostian: etxebizitzari. Eta horregatik egiten dugu beste era bateko aurrekontuaren alde: aurrezki gehiago, inbertsio eta etxebizitza sustatzeko ahalegin handiagoa (babes ofizialeko etxebizitza nahiz libre), gizarte gastuetarako eta auzoetarako ahalegin handiagoa, San Telmorekin konpromiso sendoa, tranbia jarri eta Karlos I.eko nahiz Iztuetako zubi-bideak kendu eta hiri gizakoiagoa egingo duena Donostia, porlan gutxiagokoa.

Edozein moduz ere, iruditzen zait lanari ekiteko garaia dela, aurrekontu berri bat negoziatzen hastekoa. Egiteko moduko aurrekontua, ez alderdi sozialistarena —Elorzak nahi duen bezala—, ez EAJ-EAren, inorena ere ez, baizik eta gehiengoaren aurrekontua izango dena. Alde horretatik, Elorzak badaki gure eskua luzatzeko prest dagoela.

Beraz, Elorzak elkarrizketari eta negoziazioari ateak zabaltzea besterik ez da falta, leialtasunez eta errespetuz hitz egin eta negoziatzea, bere maila batean hitz eginez, umiltasunez eta erantzukizunez, denok baikara Donostia, denok beharrezko eta inor ere ez derrigorrezko.

Horrela, aurrekontu berria negoziatzeko eguna eta ordua izendatu ditzan eskatzen segitzen dugu Elorzari: zenbat eta lehenago, eta hobe.

Agur bero bat.

Roman Sudupe Olaizola
EAJ/EAren bozeramailea

